

Olinpiar estadiotik

Txinako harresia

Gorka Zabaleta

EZ ZUEN bere idoloaren aurka jokatzetik izan —Shaquille O'Neal—, ez baitago Sydney, baina NBAko jokalariekin neurtzeko aukera izan zuen, behingoz. Ming Yao Txinako pibot nagusia da eta, bide batez, Jokoetako kirolaririk garaiena. 2,27 zentimetroko altuera du. Wang Zhizhi (2,13) eta Menk Baterrekin (2,10) Txinako harresia osatzen du taulapean. Behin-

tzat, hala deitzen diete aurkariak. Olinpiar hiriko oheak altueraren arabera luzatzeko daude prestatuta, baina Ming Yaok gehiagarri bat jarri behar izan du oinak sartu ahal izateko.

Esan beharrik ere ez dago Txina eta Estatu Batuen arteko partidua azken hauek irabazi zutela (119-72), *Dream Team*-a geldituko duen harresirik ez baita artean asma-

tu. Ming Yaok bost puntu, hiru errebote eta bi asistentzia lortu zituen, baina aldagetarako bide hartu behar izan zuen partidua amaitu baino lehen, bost falta egin baitzituen.

Yaorentzat partidu berezia zen, NBAtik eskaintza bat baino gehiago jaso baitu. Apirilean, Nike etxeak antolatu eta NBAk bultzaturiko nazioarteko txapelketa batera gon-

bidatu zuten. NBAko bitartekari asko Yao bere kargu hartzeko desiatzen daude, Asiatik lehen jokalaria izango baitlitzateke NBA, eta horrek, publizitatean bakarrik, diru asko esan nahi du.

Baina Txinako Gobernuak ez zion baimenik eman. Sydneyko Jokoak prestatu behar zituela-eta, Yaok ezin izan zuen bere ametsa gauzatu. Oraingoz, Shangaiko Sharks taldean jarraitu beharko du. Lau denboraldi egin ditu bertan —16 urterekin hartu zuten—, emaitza bikainekin.

Saskibaloian hasi aurretik, waterpoloan jokatu zuen, baina hainbeste hazi zen igerilekuko hondoa zutik jartzera iritsi zela. Gurasoek —saskibaloian jokalaria ohiak

biak— mediku batengana eraman zuten 13 urte zitue-nean, eta honek esan zien gutxienik 2,20 neurtzera iritsiko zela. Orduan hasi zen saskibaloian. Gaur egun, ez du jauzi egiteko beharrik saskia ukitzeko. Txinako Ligan ez du aurkaririk taulapean, eta hiruko jaurtiketan egiten ere ausartzen da. Normala da NBAko taldeen begi puntuan izatea. Soldata txar-txarra duenik ere ezin esan, urtean 40.000 dolar irabazten baititu, baina hori huskeria da NBA jasoko lukeenarekin.


Txinak 200 milioi saskibaloian jokalaria ditu, harrobi izugarria. Ateak zabalduz gero, NBA ariko zen bat baino gehiago, baina oraingoz Txinako harresia itxita dago.

Brasilek Hegoafrikari beti irabazi beharko lioke

Gozoak dabil-tza Brasil aldean: Hegoafrikak 3-1 irabazi berri dio gizonezkoen hango selekzioari, eta halako talde batek beraiei hain erraz irabaztea ez dute onartzen basildarrek. Komunikabideek egundokoak eta bi esan dizkiote Luxemburgo hautatzaileari. Brasil bezalako selekzio batek, ordea, beti irabazi behar dio Hegoafrika bati, baita hautatzailearik pata-lena izanda ere; izan ere, azkenean jokatu, jokalariek jokatzeko dute, ezta?

Inaugurazio ekitaldiarekin bueltaka oraindik ere

Olinpiar Joko hauetan jada banatu dira domina de-zente, eta batzuek egin dute negar, besteek algara, baina Sydney oraindik ere inaugurazio ekitaldia dute askok hizpide. Izugarri polita izan zelako, hain zuzen. Orain dela lau urte Mohamed Ali boxeolari ohiak piztu zuen sugar olinpiarra Atlantan, baina atzo Alik berak aitortu zuen Sydneykoa gehiago gustatu zaiola; «inoizko politena izan da». Horí bai, umiltasun handiarekin esan zuen berak urrea irabaziko lukeela sasoiko ba-lego.



PACO CAMPOS / EFE

Parekotasun handia mutilen eskubaloian.

Parepareko txapelketa ari da izaten gizonezkoen eskubaloian. Atzo, adibidez, Alemaniak berdindu baino ez zuen egin Hego Korearen kontra. Saskibaloian ez bezala, emozioa ziurtatuta dago mutilen eskubaloian.

Marrathoia • MATTIN •



Pieter Van den Hoogenband Holandako igerilaria



Ez du meritu makala holandarrak, denak Ian Thorperen hirugarren errearen zain zaudenean, berak irabazi baitzuen 200 metro estiloetako finala; aurreko egunean berak egindako munduko errekorra berdinduz, gainera.

Merlene Ottey Jamaikako atleta



Ez zuen posturik 100 metroetan korritzeko, laugarren geratu baitzen Jamaikako Txapelketan, baina hango Olinpiar Batzordeak taldean sartu berri du, Peta-Gay Dowdie txapeldunaren orde. Umiltasun txikia erakutsi du Otteyk.